

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Alkatearen dekretua

Ikusi da Javier Maroto Aranzabal jaunak zinegotzi-karguari uko egitearen ondorioz hutsik geratutako lekua betetzeko Gustavo Antépara Benito jaunak garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa, eta hauteskunde-batzordeak emandako kredentziala, zeinen arabera Gasteizko Udaleko zinegotzi hautetsia baita, PP taldearen zerrendan.

Gustavo Antépara Benito jauna 2016ko azaroaren 15eko osoko bilkuran jabetu da zinegotzi-karguaz.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua arabera —Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legeak emandako idazkuntza—, toki korporazioetako kideek ordainsariak jasoko dituzte beren karguetan jarduteagatik, baldin eta arduraldi eskusiboarekin badihardute, baita arduraldi partzialarekin egiten dutelarik ere, hala eskatzen duten ardurak direla eta. Udalbatzako lehendakariari dagokio hala xedatzen duten ebazpenak ematea, horretarako osoko bilkurak hartutako erabakiak betearaziz.

Era berean, Toki administrazioa arrazionalizatzeari eta haren iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen 1. artikulua 7/1985 Legeari gehitutako 75.3 j) artikuluan, mugatu egiten da arduraldi eskusibo izan dezaketen kideen kopurua.

Ikusirik 2015ko ekainaren 30ean egindako bilkuran Gasteizko udalbatzak honako hau erabaki zuela:

“2015eko uztailaren 1etik aurrera, egun hori barne, arduraldia berekin eramango duten kargu korporatiboak zehaztea:

I. Arduraldi eskusiboa izango dute alkateak eta udal gobernuko kideek, baita udal taldeen eledunek ere. Alkatearen ordainsaria 79.398,00 eurokoa izango da urtean, eta horren arabera kalkulatu dira alkateordeenak (68.877,00 euro), zinegotzi ordezkariak eta taldeek udalbatzan dituzten eledunenak (64.775,00 euro) eta arduraldi berezia duten zinegotzienak (60.674,00 euro).

II. Halaber, Eledunen Batzarrean adostutako irizpideei jarraiki, arduraldi eskusiboan bete ahal izango dituzte beren karguak aldi berean honako ardura hauetako hiru baino gehiago dituzten udalbatzako kideek:

— Udalbatzaren batzorde iraunkorretakoren bateko edo Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziko lehendakaria edo lehendakariordea.

— Kontratazio Mahaiko titularra edo ordezkoa.

— Udal erakunde autonomo bateko zuzendaritza kontseiluko kidea izatea

— Bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean.

48.286,00 euroko ordainsaria izango dute.

III. Egoera horretan ez daudelako arduraldi eskusiborik ez duten udalbatzako kideek, ardura bat baino gehiago badute —udalbatzaren batzorderen bateko lehendakaria edo lehendakariordea, edo bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean—, baina hiru gaintitu gabe, arduraldi partziala izan ahalko dute, eta aurreko atalean adierazitako ordainsariaren % 75 jaso.

IV. Ez arduraldi eskusiborik, ez arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek dietak —udalbatzak erabakitzen dituen diru-kopuruak— jasoko dituzte kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joategatik.”

Udalbatzaren Idazkaritza Nagusian aurkeztutako fitxan eskatzen duenarekin bat etorri, hau da, zinegotzi-karguan ehuneko 75eko arduraldi partzialarekin jardutea, eta kontuan izanik goian hitzez hitz aldatu den 2015ko ekainaren 30eko udalbatzaren osoko bilkuraren erabakiaren III. atalean zerrendatutako arduretako bat baino gehiago izango duela,

Xedatu dut

Udal honetako zinegotzia den Gustavo Antépara Benito jaunak bere zereginak ehuneko 75eko arduraldi partzialeko erregimenean egin ditzala, berak eskatu bezala.

Dataren egunean jarriko da indarrean ebazpen hau. Hala ere, osorik argitaratuko da ALHAOn, eta Udalaren iragarki-taulan jarriko, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 15ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE